

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko ekainaren 8a

Egunkaria


Gehigarri honetan




Lekunberri • Igandean Aralarko Ibilaldia egingen dute, hamabi kilometrotan mendiaz gozatzeko

Kutxi Romero • «Olerki liburu bat plazaratzea suizidioa da»

Antzarak bigantxen ordeztu



• Oskar Montero



• Mikel Saiz


Herrietako bestetarako bigantxak kontratatzeke prezioek gora egin dute nabarmen. Hori dela eta, azken asteotan, bigantxarrik gabe gelditu dira herri askotako besta ttikietan. Batzuek, besterik gabe, ez dute animaliarik karrikaratu, eta beste batzuek, Cabanillasen iragan asteburuan egin zuten gisara, antzaren mugimendu pausatua aukeratu dituzte bigantxen lastertasunaren eta oldartzeen ordeztu. Gure herrietako besten izaera aldatuko ote da? Antzarak ferratuko ote dituzte?

Lizarra ●

Jokin Manzanos, bakarka

Iruñeko artistaren hemeretzi margolan ikus daitezke Gustavo de Maeztu Museoan

Jokin Manzanosek Lizarran bakarka jarri duen aurreneko erakusketa ikus daiteke egunotan eta uztailaren 1a bitartean Gustavo Maeztu museoan, pinakotekaren bigarren aretoan hain zuzen ere.



Jokin Manzanosen margolanen aitzinean ikusleak ez du eroso sentitu behar. ● KRISTINA BERASAIN

JOKIN MANZANOSEK AURRETIK bertze artista batzuekin partekatu izan du erakustokia, baina oraingoan berarentzat bakar-bakarrak izan da horma zuria. «Lizarrako azkeneko pintura biurtekoan nire lan bat aukeratu zuten eta hemen bertan paratu zuten; orain bakarkako erakusketa da eta sentsazioa

oso bertzelakoa da, erabat ezberdina», adierazi du Jokin Manzanosek (Iruñea, 1962).

Camino Paredes Gustavo de Maeztu Museoaren zuzendariaren hitzetan, interes handia zegoen Jokin Manzanosen lana Lizarrara ekartzeko. «Museoaren betebeharra, bertzeak bertze, hemengo artisten lana era-

kustera ematea da, eta oso pozgarria da guretzat aldi berean bi erakusketa erabat ezberdin izatea: batetik, izen handia duen eta zendua dagoen artista baten lana (Ignacio Pinazorena) eta, bertzetik, gaztea den eta lanean tinko dabilen bertze batena».

Orotara, Jokin Manzanosen hemeretzi margolan eskegi di-

tuzte pinakotekaren sotoan. Aurretik Tolosan eta Iruñean izan dira ikusgai. Materiaren eta euskarriaren gainean lan egiten du iruindarrak, batik bat. Bere lan guztiak angelu zuzena dute ardatz, geometria, egitura... «Hausnartzeko ispiluak dira nire lanak», dio artistak. «Egia erran, koloreak ez du hainbertzeko garrantzirik niretzat, eta nire pinturan keinuaren ukazioa dago, ez baitut aztarnarik utzi nahi; eusteko ariketa bat egiten dut, laxatu egiten dut neure burua, baina ez dut keinurik egiten». Horrelaxe azaldu du bere pintura sendoa, leuna eta zorrotza. «Nire obraren aitzinean ikusleak ez du eroso sentitu behar. Gertatzen denaren aurrean esperoan egon behar du».

Jokin Manzanosek berak aukeratu ditu ikusgai dauden hemeretzi lanak, eta aukeraketa ez da nolanahikoa izan. «Koadro bakoitzak erlazio zuzena dauka bere alboan, ondoan, inguruan... dauden bertze koadroekin. Mezua bera da, baina mezua igortzeko modua aldatzen da». Gogoeta horiek guztiak egiten ahal dizkio bere buruari bertaratzen den orok.

→ Kristina Berasain

Jokin Manzanosen erakusketa

Lekua: Gustavo Maeztu Museoa

Epea: Uztailaren 1a arte

Ordutegia: Astelehenetik larunbatera

11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik

19:00etara; jaiegunetan 11:00etatik 13:30era.

Bortziriak

Andres Iñigo,
bortz aldiz

BORTZIRIETAN EUSKARAREN inguruan sortu berria den lan taldeak hainbat mobilizazio antolatu ditu datozen asteotarako. «Nafarroako Gobernua euskarari eta euskarazko irakaskuntzari egiten ari zaizkien erasoak ikusita», Bortzirieta-ko herritarrei informazio ego-
kia banatu eta, euskara eta euskarazko irakaskuntza defenditu nahi du taldeak.

Hasteko Andres Iñigo euskaltzainaren hitzaldiak izanen dira, astelehenetik ostiralera, 20:00etan, *Euskararen egungo egoera Nafarroan* gaiarekin, hurrenez hurren honako herrietan. Hitzaldiak Igantzin, Etxalarren, Lesakan, Beran eta Arantzan emanen ditu.

Etxarri-Aranatz

Aljerko mahaia

ETXARRIKO UDALAREN LAGUNTzaz, Leku Onako taberna batzordeak eta Abdul Kaderrek, herrian bizi den 35 urteko aljeriarrak, Aljeria etxarriarrei hurbiltzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, *Aljerko mahaia* lelopean. Atzo hasi ziren, Aljeriari buruzko hitzaldi batekin. Gaur, 18:00etan, kuskusa egiten ikasteko saioa egingen dute Hartzabalen. Bihar, 11:00etatik aurrera, plazan Aljeriako jokoak egonen dira haurrentzat. Eta arratsaldean, plazan bertan, *hennazko* tatuajeak egin eta arabiarrez nola idazten den erakutsiko dute. Azkenik, igande arratsaldean, Aljeriako tearen eta pasten dastaketa egingen dute Leku Onan. Gainera, kultur etxean Aljeriako ezkontza jantzien, argazkien eta marrazkien erakusketa dago.

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Non daude? Nork eraman ditu Imarkoango makro gotorlekutik? Azken hamaika urteetan epaileak ez omen zuten haxixa baliogabetzeko agindurik eman. Lasai, ziur egon bedi azkenik erre erreko dutela, bai, legez kanpoko karga. Giltzapean zegoen haxixa, baina blindatutako armairutik at; droga billegia bideokameraz josia zegoen nahiz irudirik ez den grabatu; ez dute leihorik ez aterik bortxatu. Lapurreta hau profesionalen kontua izanagatik ere, ez dugu Colombo detektibearen beharrik izanen misterioa argitzeko. Hain zuzen ere, segurtasuneko profesionalak han zeudelako gau eta egunez, aduanaren zaindari. Komiketako Anakieto agenteak ere galdera bera iradokiko luke: Nork zaintzen ditu zaindariak?

Oraindik ere, erabat harrituta dago Iribas gobernu

Chocolat (225 tableta)

ordezkaria; erantzunik gabe, argibideen zain. Bob Marleyren doinuaren erritmoan emanen diote ikerketen berri Guardia Zibileko ikerlariak. Haatik, hainbeste ikerketa gabe azalpen hobe eman zidan lagun batek: «Baztan aldeko kontroletan atzematen dizkidaten txinak inolako salaketa edo deklarazio ofizialik gabe bereganatzen dituzte. Orain ez dute kontrolen beharrik edukiko».

Honenbestez, ahanzi dezagun sanferminetako bezperan Iruñerrian egon ohi den cannabis lehortea. Aurten 225 kilo izanen dira salgai. Eta txokolatea ke bihurtzen den bitartean, ezerezetik 225 milioi pezeta sortuko ditu Imarkoango lapurrak. Magia. Poltsiko batetik Tableta kilo atera eta kilo bat pezeta itzuli beste sakelara.

Jakin dugunez, Imarkoainen ebatsitako haxix kutxak

Nafarroako Osasun Sailaren eremuan zeuden, eta egiazen aitortzeko, osasun adituen eskuetan hobe leudeke horiek guztiak, armadunen patrikan baino. Izan ere, konfiskatu gabe ezinezkoa baita konfiskatutakoa lapurtzea. Aldiz, oraindik biziki zaila da cannabis-a farmaziatan sal daitekeen irudikatzea, egun kondoiak banatzeko gai ere ez badira.

Lapurreta gertatu zen aste berean. tabakorik gabeko eguna ospatu zuten erakundeek (agerikoa denez, haxixaz ez zuten txintik ere aipatu). Dena den, tabakoak ere aski ongi daki agintariak osasunerako arraz kaltegarriak direla. Zigarroa (edo kanutoa) ahoan, batek baino gehiagok pozez ospatuko luke zaindaririk gabeko eguna, urtea, mendea... Horiek ere, sutan jarri eta bihotzerrea eragiten digutelako.

Lekunberri • Aralarko Ibilaldia, mendiaz gozatzeko

Igandean egingen da, Lekunberriko Ttuturre mendi taldeak antolaturik, Aralarko Ibilaldia. Bi urtetik behin egiten da, eta aurreko aldian ez bezala, aurtengoan eguraldi bikaina egitea espero dute antolatzaileek.

Hamabi kilometroko ibilbidea hamar ordutan egiten da



Igandean, Lekunberriko Ttuturre mendi taldeak antolaturik, Aralarko Ibilaldia egingen dute. Hamabi kilometro hamar ordutan egiteko. • ANTIXON ITURRIZA

ARALAR, LEKUNBERRI ETA INGURUA ezagutzera ematea da Aralarko Ibilaldiaren helburua. Duela bederatzi urte egin zen lehendabizikoz, eta hasieran urtero egin ohi bazen zen ere, egun bi urtetik behin egiten da. «Tolosako Aralarko Adiskideak elkarteak lau urtetik behin antolatzen duen hamalau orduko martxarekin ez bat egiteko erabaki genuen urte bakoitietan egitea», dio Jose Antonio Goikoetxeak, Ttuturre mendi taldeko lehendakariak.

Lekunberriko elkarte hau duela hamabi urte sortu zen, eta berrogeita hamar bat kidek osatzen dute. Ekitaldi ugari antolatzen dituzte, besteak beste, orientazio ikastaroak, sendabellar erakusketak eta, batez ere, mendi irteerak. «Irailetik ekainera bitartean bi motatako irteernaldiak egiten ditugu», azaldu du Goikoetxeak. «Igandeetan, goizeko zortzi eta erdiak aldera, herriko plazan biltzen gara, nora joango garen gehiegi jakin gabe. Hileko azken igandean, berriaz, leku jakin batera joaten gara.

Aralarko Ibilaldia gure egutegi-ko azken irteera izaten da».

Beti ekainean egin izan bada ere, ibilaldiaren arrakasta eguraldiaren menpe egoten da. Eguraldia lagun, jende askok parte hartzea espero dute antolatzaileek. «Batuetan parte-hartzaileak eguzkiak erreta iritsi dira bukaerara. Aurreko aldian, ordea, ibilbide zati bat itxi behar izan genuen elurra eta behelainoagatik», azaldu du Goikoetxeak.

Parte hartzen dutenen artean, gehienak gipuzkoarrak izaten dira, baina Euskal Herriko gainerako herrialdeetatik etorritako jendea ere izaten da. Antola-

tzaileek federatua egotea gomendatzen dute, Ttuturre elkarteak ez baititu ezbeharrak bere gain hartuko.

Indarrak berritzeko aukera

Goizeko seietan ekinen zaio bi-deari, eta parte-hartzaileak, taldeka, bost minututik behin ateriko dira Lekunberritik. Denbora kontrolatzeko, antolatzaileak mendi tontorretan egonen dira. Hau da, Ttuturre, Irumugarrieta, Gambo, Putterri eta San Miguelen. Azkena, herrian bertan egiten da. Denetara, hamabi kilometro hamar ordutan egiteko.

Bestalde, indarrak berritzeko,

parte-hartzaileek fruta, ura, zukuak eta jogurtak hartzeko aukera izanen dute honako lekuetan: Unakoputzun, Igaratzen —hemen salda ere hartuko dute—, Albin, San Miguelen eta Lekunberri. Gurutze Gorria herrian egonen da ezbeharren bat suertatuz gero.

Gainera, ibilbidea bukatutakoan, parte-hartzaileak masajeak hartzeko aukera izanen dute, Tolosako masajista talde bati esker. «Handik etortzen dira, ezer konbratu gabe, eta guk asko estimatzen diegu», diosku Goikoetxeak.

→ Estibalitz Ortega

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Botika berriak zabaltzeko bidean

Botika berriak irekitzeko eskualdeko herri nagusietan egindako eskaeren berri jasotzen du **Tipi-ttapa** aldizkariak bere azken zenbakian. Zehazki, 29 eskaera bideratu dituzte Nafarroako Gobernura eskualdean farmazia berriak zabaltzeko, Rakel Goñi kazetariak bere artikuluan azaltzen duenez: «Eskualdeko herririk nagusienetan jaso dira farmaziak irekitzeko eskaerak. Beran (7), Leitza (6), Lesakan (6), Donezteben (4), Elizondón (4) eta Oronoz (2). Zenbait botikarik herri berean bi eskari egin dituzte eta bada ere eskualdean jadanik botika

duena baina bertze herri batean jarri nahi duena. Nafarroako Gobernuak Osasun Sailak sortutako komisioak uztaila edo abuzturako emanen du farmaziak irekitzeko baimena lortu dutenen zerrenda».

Tipi-ttapako artikulua Berako botikari Mari Jose Sanzen iritzia jaso du gai horren inguruan: «Lege aldaketa hau nire bizitzako aukera da, ez nuen ia itxaropenik lizentzia bat lortzeko. Legea oso zorrotza zen orain arte eta oraingoa zentzugabea da baina nik egoera probetxuko dut». Botiken inguruko lege

berriak hutsuneak dituela uste du Sanzek: «Lasterka egin dute eta horrek arazoak sortuko ditu. Bakoitzaren merituak kontuak hartu beharko lirarteke, ez da berdin promozioan lehena izan dena eta doktoregoa egin duena edo zortzi urtez karrera ezin ateri ibili dena. Hala-moduzko liberalizazioa izan da, inolako planteamendu seriorik gabe». Araudi faltak Nafarroako Botikarien Elkargoko kideak ere harritu ditu: «Araudia egiten hasi direnean eskaerak eginda zeuden. Gauzak presa handiarekin egin dituzte».

Istorio Misterio

...«Beraz ea ongi ulertu dudan»-esan zuen Sherlock Holmesek pipa ahotik atereaz. «Hemen 225 kilo droga bilduak zeuden. Lapurrek ez zituzten ateak bortxatu eta bideo kamerek ez dute (eta beraz ez zuten) deus ere ez grabatu». Eta azken hau esaterakoan, eskuineko bekaina altxatu eta hantxe utzi zuen, erantzunaren zain gelditzen zela adieraziz. «Beno, egia esan Jauna...»-arropatu eman zion Iruñeko Komandantegoiburugorenak. «...oraindik ere ezin dezakegu lapurreta bat izan denik esan... baina gainerako datuak benetakoak dira». Holmesi irribarre erdia piztu zitzaion aurpegian, eta Watson doktoreak harridurazko galdera bat egin behar zuela ikusirik, segituan bota zuen: «Ez dela lapurretarik burutu jauna?». Komandantegoiburugorenak behatz bat altxatu eta ahoa ireki zuen erantzuteko prest balego bezala, baina Gobernadoreburutokikoak aurrea hartu zion: «Komandantegoiburugorenak adierazi nahi dizuna zera da Jauna, agian lapurreta izan zela baina agian ez. Ez dakigu. Ikerketaren ildo guztiak zabalik daude. Agian 225 kilo horiek hemen ziren, baina baliteke horrela ez izatea. Kontua da inbentarioan ez direla agertzen, beraz ez dugu inongo ziurtasunik. Ikusten duzunez, arazoa korapilatsua da, eta horregatik eskatu diogu laguntza Scotland Yardi». Erantzuna entzun bitartean, Holmesen irribarre handiagotuz joana zen, eta Gobernadoreburutokikoak isildu zenerako hortz guztiak bistan zituen detektibeak: «Arrazoiaren eta dedukzioaren zientziarentzat enigmak oso gauza ezdeusa dira Gorentasuna. Niri, esate baterako, galdera baten erantzuna besterik ez zait falta gauzak argitzea». «Bota bada galdera Jauna»-esan zuten aldi berean Komandantegoiburugorenak eta Gobernadoreburutokikoak. «Galdera hau da: Nor arduratzen zen zainketa lanez?». Eta Gorentasunek eman zioten erantzuna entzun bezain pronto, «dena argi dago», esan zuen detektibeak. «Badakit nork eta nola lapurtu dituen 225 kiloak!». «Nola liteke?», esan zuten aho batez mandatariek eta Watson doktoreak orduan. «Bretainia Handi eta Zaharrera bueltatu gaitzake!» esanez, petakari tragoxka bat kendu zion. Galdera: Nola jakin du Holmesek enigmaren erantzuna? ●

Bigantxarik gaeko bestak

Ganaduzaleek bigantxen prezioak nabarmen igo eta kolokan jarri dituzte herriko besta ttikiak


Erdialdeko eta Erriberako herri askok besta ttikiak ospatzen dituzte martxoa eta ekaina bitartean. Horrelako jaiek parrandarako osasunagisizat bigantxen jaialdia dute. Lehen, ordu luzez izaten ziren bigantxak herrietako karriketan gora eta behera. Aurtan, ordea, bigantxarik gabe egin behar izan dituzte besta ttikiak Aragoi, Gares, Falces, Monteagudo, Cascante, Fitero eta Cabanillasen. Bigantxak kontratatzeke prezioek gora egin dute eta herriek ezin izan dute ganaduzaleen aurikoa ordaindu.

MARTXOAREN ERDIALDERA, BESTA TTIKIARIKI bertan behera gelditu ziren Artaxonan, behi eroen krisia dela-eta prezioak anitz igo direlako. Iaz 300.000 pezeta ordaindu zituzten egun bakoitzeko bigantxak ekartzeagatik. Baina aurtan ezin izan dute ordaindu ganaduzaleek eskatzen zuten milioia. Artaxonan, Nafarroako herri askotan bezala, bigantxarik ez izateak bestarik ez izatea erran nahi du, bigantxak bestetako arima eta ardatz baitira. Artaxonan bezala, Garesko eta Falcesko gazteriaren bestetan ez zuten bigantxarik izan. Berdin Monteagudo, Cascante, Fitero eta Cabanillasen. Gauza bera gertatuko da Fustiñanan. Eta besta ttikiaren gertatu dena ikusirik, kezkatzen hasiak dira herriko etxeetan, prezioek beren horretan segituz gero udako besta nagusiak ere kolokan egonen direlako.

Prezioen igoeraren atzean ganaduzaleen arteko hitzarmena dagoela dirudi, guziki bat egin baitute prezioak finkatzeko tenorean, sektoreak dituen arazoei elkarrekin aurre egiteko. «Herriek ulertu behar dute behi eroen afera dela-eta ganaduzaleek ditugun arazoak: hamaika aldiz ikuskatzen gaituzte, pentsuak geroz eta garestiagoak dira...», erran zion ganaduzaleen elkartearen lehendakari Victor Arriazuk EGUNKARIARI Artaxonako bestak bertan behera gelditu zirenean. «Ezin genuen orain arteko prezioekin jarraitu», gaineratu zuen. «Herriek egoera berrira moldatu beharko dute, eta egun gutiago egin bigantxekin, edo ordu gutiago...».

Udalendako onartezina da igoera
Dena dela, ez dirudi herriek ganaduzaleen arazoa arras ongi ulertu zutenik. Apirilaren 26an, hogeita hamar bat herri bildu ziren Alesbesen arazoaz hitz egiteko. Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Pedro Tabarrek orduan erran zenez, «herriek ez dute onartuko neurriz gainera igoera hori, eta hori konpontzerik ez badago, herri anitzetan programaturik dauden zezen jaialdi anitz ez dira egingen». Herrien aburuz, ganaduzaleek ezarritako igoera (%130ekoa zenbait kasutan) «onartezina» zela.

Udalek hainbat ordezkarri ezarri zituzten negoziatzeko, baina negoziazio horiek ez ziren nahi bezala bukatu eta Udalerrien Federazioak hainbat erabaki hartu zituen, maiatzaren 17an Pedro Tabarrek jakinarazi zuten. Udal ordezkariek, berriz ere, «gehiegikeriaz» jo zituzten prezioak, eta ganadutegi guzietan prezioekin bat egin izana kritikatu zuten bereziki. Udalek hainbat ga-



nadutegi bidaliriko tarifen dokumentuak aurkeztu zituzten, erakusteko ganaduzaleak ados jarri zirela prezioak finkatzeko. Agiriotan ikus daiteke prezioak berak direla, kategoriak ere berak direla, eta batzuetan tipografia bera ere erabili izan dutela. Udalerrien Federazioaren arabera, ganaduzaleen artean akordioa dago, «argi eta garbi». Federazioaren aburuz, tarifen bat-egite hori «legez kanpoko» da, Eskumenaren Defentsarako Legearen kontrakoa baita. Ganaduzaleen jarraera aldatzen ez bazen, Federazioa prest agertu zen ganaduzaleek Eskumenaren Defentsarako Epaitegiaren aitzina salatzen.

Ganaduzaleek ez dute onartu udalen proposamena

Halaber, Federazioak zezenketak kontratatzeke eskaintza itxia egitea aztertuko du ganaduzaleek bere horretan jarraitzen badute. Horrek, praktikan, zezenketak anitz ez egitea ekarriko luke, eta horrek galera handiak ekartzen ahal dizkie ganaduzaleei. Hori gerta ez dadin, Federazioak proposamena egin

zian ganaduzaleei iazko prezioak KPIren arabera igotzeko eta heldu den urteko errentezia prezioak lasaigo negoziatzeko.

Ganaduzaleek, baina, errefusatu egin zuten proposamena. Euren iritziz, sektorean diru anitz galtzen ari da krisiagatik, eta merkaturak erregularizatu egin behar da negozioaren errentagarritasuna bermatzeko. Era berean, Federazioaren oharrarazpena ikusirik, ganaduzaleek nahiago dute orain isilik egon, ganaduzaleen elkartearen lehendakari Victor Arriazuk NAFARKARIARI erran zionez: «Momentu honetan ez zait komeni prezioen gainera galderei erantzutea».

Ganadutegi publikoak?

Eta, bitartean, SERINSAN, Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatearen enpresa publikoan, 300 edo 400 abelburuko ganadutegi erostea pentsatzen ari dira herrietako bestak hornitzeko. Huraxe argitaratu zuen, bederen, *Diario de Noticias* egunkariak maiatzaren bukaeran. SERINSAN lehendakari Ignacio Perez Gardek ez

du albiste baiezta, ezta ukatu ere. Aurtenez, betiere Uharteko egunkariaren arabera, SERINSAN 400 bat behi erosiko du partzuergo moduko ganadutegi eratu eta herrien arteko koordinazioan lagunduko du bestetako jaialdiak behar bezala hornitzeko.

Pedro Tabarrek, Udalerrietako Federazioko lehendakari eta Caparrosoko alkateak, «hagitz ongi» hartu zuen albistearen. Iragan asteburuan ospatu zituzten herriko jaialdiak. Bestetako programak, urtero bezala, ekitaldi tradizionalak biltzen zituen, hala nola, herri bazkaria, Maiatzaren paratzea edo betiko kirol eta musika jarduerak.

Reina, Udalaren eta ganaduzaleen arteko akordioak erabiltzeko ez zenez, lehenagotik instalaturik zituzten ohol

ZEZEN JAIALDIEN PREZIOAK

Entzierroak

1. abelburu.	80.000 pzta / orduko
2. abelburu.	140.000 pzta / orduko
3. abelburu.	160.000 pzta / orduko
4. abelburu.	175.000 pzta / orduko
5. abelburu.	185.000 pzta / orduko
6. abelburu.	190.000 pzta / orduko

Gaeko entzierroa

(1 edo 2 abelburu).	200.000 pzta / orduko
Entzierroa mendian (gehienez 9 abelburu)	150.000 pzta / orduko
Behiak hareazko plazan	65.000 pzta / orduko
Behiak hareazko plazan gauez.	150.000 pzta / orduko
Zezenen entzierroa.	250.000 pzta

Kalte-ordainak abelburuen lesio edo heriotzagatik

Adarra galtzea.	80.000 pzta
Begia galtzea.	80.000 pzta
Behi hila edo erabilezina.	200.000 pzta
Zezen hila edo erabilezina.	250.000 pzta
Joaldun hila edo erabilezina.	300.000 pzta

Bigantxen alternatibak

BIGANTXAK KONTRATATZEKE PREZIOAK IGOERA DIRELA ETA, udalendako jaien arduradunek bi aukera dituzte: bestetan animaliarik ez ateratzea, edo herriarrak entretenitzeko bestelako ikuskizunak bilatzea. Garesen, maiatzaren 19 eta 20an ospatu zituzten Gazteriaren bestak, eta baten batek komentatu zuen Udalak Animalien Elkarte Batek bestailera deitu zuela galdetzeko ea bigantxen ordez bestak erabiltzen ahal zituzten. Azkenean, ez zen bi- tateko zezen jaialdiak murriztu edo bertan bigantxarik izan Garesko karriketan, ezta ostrukarik ere. Cabanillasen, berriz, bigarren aukeraren alde egin zuen. Iragan asteburuan ospatu zituzten herriko jaialdiak. Bestetako programak, urtero bezala, ekitaldi tradizionalak biltzen zituen, hala nola, herri bazkaria, Maiatzaren paratzea edo betiko kirol eta musika jarduerak. Reina, Udalaren eta ganaduzaleen arteko akordioak erabiltzeko ez zenez, lehenagotik instalaturik zituzten ohol

hesiak kendu behar izan zituzten. Bigantxen ordez beste animalia batzuk ekartzea otu zitzaizen Cabanillasen.

Cabanillasen, igande, San Roquearen omenezko meza eta prozesioaren ostean, ez zen bigantxa jaialdirik izan. Horren ordez, arratsaldeko zazpiak aldera, Udalteke plazan jendetza bildu zen sei antzaren mugimendu konpasatuak ikusteko. Legeak debekatzen du animalien erabilera ikuskitzuz publikoetan baldin eta sufrimendurik eragiten bazaien. Hortaz, herriko gazteek ezin izan zuten antzaren aitzinetik lasterka egin, ezta gerriko mugimendu arinez antzaren oldartzeak saihestu ere. Begiratza mugatu

behar izan zuten. Edo paso egin zuten. Izan ere, gazteak baino gehiago haurrak zeuden antzaren nondik norako- ei begira.

Artzainak, bi artzain zakurren laguntzaz, sei antzarek osatutako taldea harat honat gidatu zuen; artzagitik aterarazi zituen, zubi baten gainetik pasarazi eta igerileku batean murgilarazi. Antzaren lasterraldiak ez ziren bigantxenak bezain ikusgarriak izan, baina, behintzat, ez zuten zauriturik eragin.



The sound of silence

Isilik. Pelikuletan, telefilmelan, telesailetan, senar-emazteek egunaren azken hondarretan, ohatzean sartuta, loak hartu aurretik, solasaldi mamitsuak izaten dituzte. Pelikuletan, telefilmelan, telesailetan, logelan ez dute telebistarik. Guk badugu, eta pantaila txikiari so mutututa galtzen dugu konortea. Konortea galdu diot, eta ez, esaterako, Morfeoren magalean erori, Crónicas Marcianas ikusten dugulako, edo eta, goizago oheratzekotan, Sorginen Laratza. Emazteak dio **Xabier Euzkitzeren** saioak hobera egin duela Iruñeko buruhandi hark utzi zuenetik. Nik diot, buruhandi baten gorabeheran, **Xavier Sardaren** freak bildumaren klon sorta rh negatibodunak beti bezain negatibo segitzen duela.

Astearte gauean, Kanal 33 ikusi genuen —M-13ko emaitzen ondotik, izena aldatu eta hala jarri behar omen diote ETBri—. Chupacabras izeneko izakiaren inguruko erreportaia jasanezin bikaina pantailaraten ari ziren —bikaina deritzot **Maider Egues** erreportari bikainak egiten duen guztiari—. Halako batean, esatari arrasatearrak iragarkiei bide egin zien. Gure afalondoetako ohiko isiltasuna hautsi eta bazkalondotik errailetan usteltzen ari zitzaidan galdera okaztatzeko parada ezin hobea iruditu zitzaidan. «Zer nahiago duzu, egia mingarria ala gezur gupidatsua?», oldartu nintzaion emazteari. Ez zidan erantzun. Eta isiltasuna erantzun azkarra iruditu zitzaidan. Horrelako ataka batean ez erantzutea izan daiteke irtenbiderik hoberena. «Ona, oso ona», aitortu nion, pentsakor, ohetikideari. Berak isilik segi-



Maider Egues erreportari bikaina.

tu zuen. Orduantxe jabetu nintzen lo zerraldo zetzala.


Solasean. Astearte goizean, Unzun hamaiketakorako ematen diguten ordu erdia —Unzuko etxetresna elektrikoen saileko saltzaileen burua naiz, beheko solairuan, sartu eta ezkerrera— semearen futbolarako botak konpontzera eramaten ahitu nuen. Aluak estreinatu zituen egun berean izorratu zituen. Carmen karrikako zapatariarengana joan nintzen, baina negozioa itxi du —pena, langile fina zen eta—. Atzera bueltan Mañuetarantz nindoala, Gerardo mus bikotekidearekin egin nuen topo. Zumalakarregiren Atarirantz zihoan, horren peko aldapan aparkatu kotxearen bila —portzierto, atariko harrietan pintada egin duen intsumiso soberanistak hurrengoan horma arruntago, apropo-



Alfredo Landa aktorea.

sagoren bat aukera lezake aldarrikapenerako—.

Gerardo Action-Woman erregionalistak ezarri ORA, TAO edo dena delakoaren kontra sutsu bezain gordin ari zitzaidala, neskakito pinpirin ile horia hurbildu zitzaigun: «Pardon, could you tell me where Masionave hotel is?». Irristalari australiarra zela iruditu zitzaidan. Batetik, ahoskeragatik. Bestetik, txandalean zuen Australiako Irristaketa Federazioko ikurragatik. Nik nirekiko galdegilearen jatorriaren kokapen geografikoa zehazten nuen bitartean, duela ha-



Zumalakarregi ataria, Iruñean.

mabost urtetik ezkondata dagoen gure Gerardo jo eta fuego aritu zen lanean: «Is not easy. May be, will be better I go with you». Eta Txantreako ingelesez solasean, Gerardok Masionave hotelerrantz irristaka alde egin zuen, Zumalakarregiko ataria, kotxea eta hirurok gibelean utzita On **Pablo Jose Aristoren** estilon: adiorik esan gabe.

Algaraka. Astearteko bazkalondogan, San Remo tabernan musean ari ginelan, Gerardok hordagoa bota zidan: «Zer iruditu zaizu gaur goizekoa? **Brad Pitt** iruindarra naiz!». Eutsi nion: «Nik **Alfredo Landa** zarela esan nuke». Eta irabazi nuen. Galdu nuela, alegia. Ingurukoak barre algaraka hasi ziren. Gerardo haserretu zen. Eta orain ez dut muserako bikotekiderik. Zenbaitetan, hobeto isilik.



panpilonia zirkus

Pamplonak

Conocerte es amarte baby, Eolo, Tío Enrique, Boulevard Jazz, Sammy... 80 urteen hasieran, Donibane eta Iturrama auzoetan hainbat pub ireki zituzten bata bestearen atzetik. Neoizko argiak, musika pijoa eta edari konbinatuak barra-barra.

Malembe, Pamplonika, Utopia, Primi, Ttutt... Alde Zaharrean ere makina bat taberna berri zabaldutako ziren. Argi ilunak, musika burrunbatsua eta garagardoa barraz barra. Bertatik gertu, San Frantzisko karrika estu eta bihurrian, kanpotik behintzat taberna itxura zuen lokala paratu zuten. Ateak eta leihoak beti itxita. Ez taberna, ez pub. Hankatartea zen bertako nagusia. Hala ere, Pompalo Pub irakur zitekeen atariko errotiluan.

Gure hiria eraiki zuen jeneralaren omenez jarri zioten izena. Pompalo, Pompe-

yoren hiria. Buruzagi erromatarra, libidoren aginduetara, tankera horretako lekuetan ibiltzen ote zen ez da artxiboetan ageri. Gaur garena izateko toponimiak egin duen bidea, berriz, oso txukun azaltzen zaigu paperetan: Pampalona, Pampilona, Pampilonia, Pampillona, Pompolona, Pomplona. Porrompompero-arekin etorriko dira Manolo Escobar eta Gozategi taldekoak horrela jarraituz gero.

Azkenean, eta hitz batean, Pamplona. Pamplona bat eta bakarra. Hobeto esanda, bakarra baina lau. Bakarra baino, lau. Mundu zabaleko beste hiru herrialdetan dago Pamplona: Filipinetan, Perun eta Ozeano Atlantikotik hurbil, Kolonbian ere bai.

Pedro de Ursua baztandarrak nahiago izan zuen Bidasoako izokinak atzean utzi



Bi Pamplonen senidetzea egin da egunotan.

eta El Dorado-ko fantasiaren atzetik joan itsas inguru hartara. Bere bidean, atsedena hartu eta kafe bat zurruputzen ari zen bitartean, Kolonbiako Pamplona hiria fundatu zuen, duela lau mende luze. Itsa-

sadarreko kaia Puerto Pamplona deitzen da eta ibaia Pamplonita. Sormenez blai.

Gabriel Garcia Marquez idazle kolonbiarraren Bakardadeko ehun urteak baino denbora luzeagoz egon dira elkarren artean harremanik izan gabe bi hiriak. Azkenik, 452 urteren ondoren, senidetzea erabaki dute. 50.000 lagun besterik ez dira bizi han. Hala ere, bertako alkatea Faber Mogollon deitzen da, eta hark sinatu zuen Barcinarekin adiskidetasun akordioa. Protokoloa Iruñeko udalean izan zen, aurreko astean.

Horrenbestez, Iruñeak baditu izen bereko hiru anaia biki eta beste hiru senide. Baiona, Yamaguchi eta Paderborn. Nolanahi ere, Kolonbiako Pamplona adoptatu egin dugula dirudi. Yolandaren esanetan, «beharrean dagoen anaia txikia ekonomikoki eta sozialki lagunduko dugu». Eta Mogollon jaunak adierazi duenez «ez gara Nafarroara El Dorado-ren bila etorri».

Kutxi Romero

MAREAKO ABESLARI ETA IDAZLEA

soslai

25 urteko gaztea da Kutxi Romero, Berriozarkoa. Inoiz ez du futbola gustuko izan, bai, ordea, idaztea eta irakurtzea. Eskola laster utzi zuen, hamasei urte zituen, eta eraikuntzan hasi zen lanean.

Hamaika lanbide ezagutu ditu, baina musikarako zaletasunak bere lehen taldea osatzera bultzatu zuen 17 urte zituen. Beste hainbatetan izan da, duela hiru urte Marea sortu zuen arte. Talde horrekin bi disko plazaratu ditu.

Lehen olerki liburua 24 urte zituen plazaratu zuen, eta, orain, 26 betetzeko hilabete eskas falta zaionean, bigarrena. Idazleen artean Bukowski maite du bereziki. «Haren lanak irakurtzen eskolan ikasitakoak ez zuela deusetarako balio ikasi nuen».

«Olerki liburu bat plazaratzea suizidioa da»

• MIKEL SAIZ

EGUNGO GIZARTEAZ IKUSPUNTU ezkorra du Kutxi Romerok, baina idaztea betidanik gustuko izan duenez, bere lana bere kabuz plazaratzeko prest dago. Zenbat jende irakurriko duen ez dio axola. Kaleko mutil batek kaleko jendearentzat egindako liburua dela dio atera berri duena.

■ Zer da *El sumidero*?

Hasteko, suizidio bat da, olerki liburu bat plazaratzea suizidioa, erokeria delako, berez, eta are gehiago orain. Inork ez du irakurtzen, eta inori ez zaio interesatzen olerkigintza. Gizarte memeloa da gaurkoa, *Anaia Handia*-ren garaian gauden, eta langileek eskuinari ematen diote botoa. Horregatik, poesia liburu bat plazaratzeak erran nahi du ego oso handia duzula, edo oso inozoa zarela. Nik, aspalditik idazten dut, beti gustatu zait, eta idazten dudana ezagutzera emateko gogoia izaten dut. Horregatik atera dut liburu hau, eta horregatik atera nuen aurrekoa ere. Merezki duela uste dut, baina ez dakit, azkenean, norbaitengana helduko denetz.

■ **Ikuspuntu ezkorra duzu; egoerak onera egingen duen esperantzarik baduzu?**

Marea musika taldeko abeslaria delako ezagutzen dute askok Kutxi Romero; musikaz gain, ordea, literatura ere lantzen du Berriozarko gazteak, eta horren adibide da bere kabuz plazaratu berri duen 'El sumidero' ('Hustubidea') olerki liburua. Bigarrena da, 'Ruidografias' izenburukoaren ondoren.

Ez, olerkigintzak ez du inolako oihartzunik. Ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuan olerkigintza irakurriko luketen 2.000 lagun daude, klasiko batek 600 ale inguru sal ditzake, eta poesia argitalpen nagusiek 300 aleko edizioak plazaratzen dituzte. Nik 1.000 atera ditut; erotuta egon behar dut!

■ **Halako egoera baten erdian, zerk bultzatu zintuen idaztera?**

Txikitatik idatzi dut, beti izan dut idazteko kezka, olerkiak, ipuinak, besteentzako kantak, denetarik. Idazten duzunean bi aukera dituzu, egiten duzuna etxean gorde eta olerkari hila izan, edo bizirik egon, irakurle batentzat, hogeitaz edo 50 irakurleentzat. Nik bigarren aukera nahiago dut.

■ **Nolako gaiak ukitu dituzu liburu berrian?**

Olerkigintzan beti landu di-

«Olerkarien figura, 'glamour'-ez bete da. Horrek nazka izugarria ematen dit. Horrela bada, nik ez dut olerkari izan nahi»

ren gaiak, heriotza, amodioa, ametsak... Betikoa, baina nire ikuspuntutik. Nik nire kabuz ikasi dut, eta nire ikuspuntua kalekoa da, ikuspuntu gardena. Ez dut, beste idazle asko bezala, pedante izan nahi. Kaleko mutil batek kaleko jendearentzat idatzitako liburua da, finean.

■ **Patxi Irurzun, Oscar Berrolegi, Kike Babas eta Roberto Iniestak parte hartu dute zure liburuan; nola sortu da laguntza hori?**

Nik bilatutako laguntza izan da. Nik gustuko dudana jendea da, gustatzen zait nola idazten duten. Liburuan biltzeko zerbait idazteko eskatu nien, eta egin dute. Mikel Pozak, berriz, marrazkiak egin ditu. Kontent naiz emaitzarekin. Gauzak bihotzez egiten dituzte, eta hori interesatzen zitzaidan niri. Guztion artean egindako liburua da.

■ **Zure liburuetako olerkiak ez ezik, Marea taldeko kantak ere idazten dituzu; badago loturarik bi lan horien artean, edo oso ezberdina da zure asmoa kanta bat edo olerki bat idazten duzunean?**

Musika eta literatura, nolabait, nahastu egiten dira, baina lana oso bestelakoa da; askoz zailagoa da kantak idaztea, denbora asko eskatzen du. Urtean hamabost bat kanta idazten dituzu, olerkiak, berriz, pila

bat. Kantak idazteko lana lasaitasunez egin behar duzu, eta beste hainbat gauza hartu behar duzu kontuan. Harremana badago. Ezberdintasuna formen dago, ez edukian.

■ **Zure kanta baten izenburu da *No quiero ser un poeta* (*Ez dut poeta izan nahi*); bi liburu plazaratu eta gero, ez dirudi olerkari ez izateko bide onetik zoazeneik.**

Nik erran nahi dudana da poesia bere funtsean aldarrikatzen dudala, ez poesiaren inguruan sortu den *glamour* hori. Olerkariak gosez hiltzen dira, baina, aldi berean, olerkarien figuraren inguruan halako estatus soziala sortu da, *glamour*-ez bete. Horrek nazka izugarria ematen dit. Horrela bada, nik ez dut olerkari izan nahi.

■ **Eta musikari dagokionez, zer moduz Marearen abentura?**

Oso ongi. Azken hiru hilabeteotan kontzertu asko eman dugu, eta udan oraindik lan gehiago izatea espero dugu. Orain, gainera, hirugarren diskoa prestatzen ari gara, burubelarri. Pentsatu behar dugu nola aterako dugun, norekin, lan handia dugu, beraz.

→ Edurne Elizondo

NAFARROA
kap: taina
ETA PETILLA
KOMANDANTEORDEA

Inpernuko
Atean....

Aupa
Dedio!



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Murritzteak, jautsierak eta desagertzeak

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen delegaziotik 225 kilo haxix desagertu dira. Ikerketa luze eta sakonen ondotik, Jose Carlos Iribas Gobernu delegatuak (Ansuategi, gogoan zaitugu) kilo horiek egon behar luketen lekuan ez daudela adierazi du lasai demonio. Colombok ere ez luke hobeto eginen. Egoitza horren ateetan ez da bortsakeria arrastorik ageri. Gau eta egun kameraz zainduta egoitza desagertu dira, baina, zoritxarrez, kamera hauek ikusi bai, baina ez dute ikusitakoa grabatzeko ahalmenik. Kasualitate puta! Guardia Zibilak egiten zuen zaintza eta Guardia Zibilak berak eginen du ikerketa, eskerrak!

Nafarroako Gobernuak Osasunbideko lanpostuetarako eginen dituen oposizioetan euskararen ezagutza oraindik gutxiago hartuko du kontuan hemendik aitzina. Astelehenean onartutako Foru Dekretuaren arabera, ingelesa, frantsesa eta alemanaren neurrian hartuko da kontuan euskara. Ildo murritztaileari eusten dio, beraz, Nafarroako Gobernuak, nafarren zati handi baten eskariari entzungor eginez. Agian murritzte honek ez du euskararen desagertzea ekarriko.

Baina euskararen murritztearen eta drogaen desagertzearen afera gai garrantzitsua izanik, aste honetako honetan, nafarrondako gairik garrantzitsuena Osasuna futbol taldearen balizko jaitziera izanen da. Zaragozaren aurka galtzen baldin badu, adio erranen dio talde gorritxoak futbolaren maila nagusiari. Ez dut uste horrek murritzte handirik ekarriko liokeenik Osasunari, agian bazkide kopuruan edo futbolariak kobratzen duten soldatetan nabaritutako litzateke. Dena den, azken honek gehiengoarena baino altuago izaten segituko luke. Eta zer erranik ez, ez da Delegazioko txokolatea bezala desagertuko Osasuna taldea, noski. Baina, Osasunarena izanen da gure medioetan gehien aipatuko den albistea. Izan ere, zer dira ehunka kilo batzuk droga desagertzea edo milaka urte dituen hizkuntza baten murritztea, munduko futbol ligarik indartsuenean, omen, kategoriatik jaustearekin konparatuta?

gure aukerak

MUSIKA

- **Barañain:** Gaur, 20:00etan, Oskorri taldea Retegi frontoian izanen da.
- **Atarrabia:** Gaur, 22:00etan, Shintia pop kantaria Udaletxe plazan izanen da.
- **Zangoza:** Gaur, Anorexia taldeak El Espejo tabernan joko du 23:00etan, eta Dilema taldeak Dos Caballos tabernan 00:00etan.
- **Tafalla:** Gaur, Tagore eta Nadie Conoce a Nadie taldeek Gabalzeke tabernan joko dute gaueko hamabietatik aurrera.
- **Iruñea:** Bihar, Su Ta Gar, Flitter, Marea eta Hemendik At taldeek zezen-plazan joko dute, 20:30etik aurrera.
- **Iruñea:** Ostegunean, Labrit kantariak kontzertua eskainiko du Erraldioen Txokoa, 20:30ean.

ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, 20:00etan, Golem zinemetan, *Jaizkibel* film luzea eta *Uxo* film laburra emango dituzte, Iruñeko Zinemaldiko sariak emateaz batera.

PAILAZOAK

- **Iruñea:** Asteazkenean, Kiki, Koko, Moko eta Flax Ziudadela izanen dira, 18:30ean.

HITZALDIK

- **Olatz:** Asteazkenean, 20:00etan, Amaia Elosegik *Turkiatik Myanmarera bizikletaz* diapositiba emanaldia eskainiko du Kontzeju Etxean.

KIROLA

- **Altsasu:** Igandean VI. BTT Zeharkaldia jokatu dute; 42 kilometro mendi bizikletan egiteko. Irteera 09:15ean, Foruen plaza-tik. Izen ematea, 08:30etik aurrera.
- **Iruñea:** Iruñeko mugetan barnako bosgarren ibilaldia eginen dute igandean. Irteera goizeko

zortzietan, Lagunartea elkarte-tik, eta 14:30ean herri bazkaria, Magdalenan. Izen ematea eta informazioa, IKAKo edozein euskaltegitan edo 948-222246 telefonoan.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Sanferminetako barraken egitaraua iragartzeko kartelen lehiaketarako lanak hilaren 12a baino lehen entregatu behar dira, Iruñezar euskaltegian, barraken batzordearen izenean. Kartelak *Barrakak gure alternatiba* leloa bildu behar du eta, halabeharrez, zati zuri bat

izan behar du, gero kontzertuen berri emateko.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Euskalerria Irratiaren Larreko afarirako txartelak salgai dira Xalbador, Auzolan, Karrikirin eta irratiaren bertan, 2.900 pezetan.

BESTAK

- **Noain:** Elortzibarko Euskararen Eguna bihar: dianak (10:00); dantzari eta joaldunen desfilea, ikastetxetik (11:00); herri kirolak, Mieltxo Saralegi, Antonio

Senosiain eta Juan Jose Barberenarekin, San Miguel plazan (12:00); doako herri bazkaria eskolako frontoian (14:00); Popi eta Zarratrako pailazoak (17:00).

- **Burlata:** Axularren kultur astearen akabera jaia igandean: zikiro jatearen prestaketa (10:00); pilotaren modalitate zaharren erakustaldia Askatasunan (10:30); joaldun, erraldoi, kiliki, txistulari eta gaitarien kalejira (12:00); AEKri Ekilore 2001 kultur saria emanen diote (13:00); jarraian, dantzariak; zikiro jatea (14:00), eta Txintxarro txaranga musikalaldia (17:00).

• JOXE LACALLE



Santiagoraino zaldiarekin

Larunbat goizarekin etorri zitzaigun Iruñea zaldun erromesa. Udaletxe plazatik igaro zelarik, zalditik jaitzi eta herriko etxeko aurrealde barrokoari begiratu zion. «Iruñean argazki bat egiteko moduko monumentu bakarra da», erran zion praka motzeko madrildar batek. «Gainera, telebista plaza handi-goia dela dirudi», segitu zuen turistak. Zaldunak, kasurik ez. «Eta katedrala ikusia zara?; hori baino itsusiagorik ez dut nik oraino ikusi. Eskerrak ongi ezkutaturik duten». Iparretik etorritako zalduna Madrilgo maisealariarekin nazkatzen hasia zen. Zaldia ere deseroso zegoen. «Zezen gaixoa, horrelako adokinetan lasterka egin behar ere», pentsatu zuen. «Goazemak, Dimitri, nahikoa ikusia diagu eta». Zaldunak zaldia hartu eta Donejakue bideari ekin zion berriz.